



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

Bide eman euskarari: Berdintasunaren alde

Paul Bilbao Sarria

Kontseiluko idazkari nagusiaren hitzartzea

Aurreko igandean, duela hogeita hemeretzi urte onartutako Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak hirurogeita bederatzi urte betez zituen. Deklarazio horrek adierazi zuen ez dela inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik..

Atzo hogeita hamaika urte bete ziren Nafarroako Parlamentuak herritar batzuei soilik hizkuntza-eskubideak aitortzen zien legea onartu zela. Eta, noski, horren ondorioz, milaka herritar eskubidez gabetu zituen lege horrek.

Bitxia, oso, aste berean baina urte desberdinetan onartutako bi arau horiek zer-nolako aldeak dituzten, ezta? Lehenak, herritarren berdintasunaren aldeko bokazioa zuen. Bigarrenak, aldiz, herritarren eskubideak *zomifikatu* zituen, eta eskubide desberdinak aitortu.

Lehenak hizkuntzarenagatiko bereizkeria-ezak dakarren berdintasuna gizarte bateko printzipio orokorren barruan kokatu zuen. Bigarrenak, aldiz, kontrako norantzan kokatzen diren *desberdinkeria*, diskriminazioa, herritarren arteko sailkapenak... legez ezarri zituen.

Eta, hitz horretan jarri nahiko nuke azpimarra: HERRITARRAK. Finean, desberdintasuna edo diskriminazioa sortzen denean herritarrak daude atzean, pertsonak, izen-abizenak dituzten pertsonak. Nire aurretik irakasle kaltetuen izenean igo diren pertsonak, haur-eskoletan dauden pertsonak...

Berdintasunaren kontra egiten dutenean, beraz, pertsonen kontra egiten ari dira, eta horrexegatik hain zuzen ere, beharrezkoa ikusi genuen gaur Iruñeko karriketara ateratzea, pertsonen aurkako erabakiak hartzen ari direla gogorarazteko.

Geure hizkuntzari ez ezik, justiziari, oreka sozialari, lan-eskubideari, hezkuntzari ere eragiten dieten erabakiak hartu dituzte eta hartu nahi dituzte. Eta, horrexegatik, pertsonen, justiziaren, oreka sozialaren, lan-eskubidearen kontrako jarduntzat hartzen ditugu, bai aste honetan bertan Nafarroako Auzitegiak Iruñeko haur-eskolen karira hartutako erabakia, bai eta hurrengo ostegunean atzean dudan eraikin honetan, nafarren eskubideen jagole izan beharko lukeen Parlamentu honetan, hartu nahi duten erabakia. Lehenak haurren eskubideen urraketei atek zabal diezazkiekeelako; bigarrenak euskaldunak zigortuko dituelako.

Duela urte eta erdi Sarasate pasealeku honetan bertan *Bide eman euskarari* aldarrikatu genuen. Orduan esan genuen Nafarroan eman beharreko ALDAKETak erabaki eragingarriagoak eta ausartagoak behar zituela euskaldunon eskubideei dagokienez. Eta, nola ez, horrelakoak emanez gero erantzukizunez jokatu genuela hitz eman genuen.

Egia da, bai, duela aste batzuk UPNk euskaldunak zigortzeko abian jarritako zerrenda bikoitzen sistemarekin amaitzeko erabakia hartu zuela Gobernuak. Lehenago hemen goian izan ditugun herritarrei eragiten zien diskriminazioa. Izan ere, UPNk abian jarritako sistemaren ondorioz, herritar horiek eta beste hainbat, guzti-guztiak euskaldunak, zigortu nahi zituen.

Eta, ideia hori berretsi nahiko nuke: Zerrenda bikoitzaren sistema UPNk euskaldunak zigortzeko beste trikimailua izan zen. Jakin dakigu zer-nolako politikak abiarazi zituen euskara bide-seinaleetatik, irudi korporatibotik, izendegietatik eta abarrekoetatik desagerraraziz. Eta, hori nahikoa ez, eta administrazio publikoan langile euskaldunak zokoratu eta zigortu besterik ez zituen egiten. Horrexegatik txalotu genuen bidegabekeria horrekin amaitzeko erabakia, eta horrexegatik deitoratzen dugu bidegabekeria berrezartzeko urratsa, hain zuzen ere, hurrengo ostegunean atzeko eraikin honetan bozkatuko dutena. Bozka horiek ez zaizkio bakarrik hizkuntzari lotzen, bozka horiek justiziari, bizikidetzari eta bereizkeria ezari lotuko zaizkie.

Eta, ezin ahaztu, manifestazio deialdia egin eta gutxira, euskaldunon eskubideen alde hartutako beste erabaki batek ere ukapena jaso zuela, hain zuzen ere, Iruñeko haur-eskolen aferaren inguruan Nafarroako epaitegiek emana. Tamalez, beste behin erakutsi dute hizkuntza-eskubideen eremuan justizia eta epaitegiak ez doazela elkarren ondoan. Nola uler daiteke, bestela, herritarren behar eta eskaerei erantzunez eta herritarren eskubideak tarteko, instituzio batek hartutako erabakia bertan behera uztea?

Berdintasuna erdiesteko erabakiak hartu behar dira, berdintasuna ez da erdietsiko euskararen alde bakarrik egonez. Erabakiak hartu behar dira, eta egia da, batzuetan erabaki horien kontra oldartuko zaizkigula, baina, lasai, erabaki horien alde ere agertuko gara herritarrak.

Amaitzeko, gaurko hitzaldi hau baliatu nahiko genuke azken mezu bat zabaltzeko. Hemen atzeko eraikinean ordezkatzeko gaituztenei eskaera bat egin nahiko nieke: Egin ezazue benetan berdintasunaren alde, egin ezazue benetan justiziaren alde, egin ezazue benetan oreka sozialaren alde, eta horretarako amaiera eman iezaiozue herritarren arteko bereizkeriak ahalbidetzen dituen legeriari. Euskaldun guztien eskubideak aitortuko dituen lege berria onartu, eta, zalantzarik ez izan, orduan ere hemen egongo garela, eraikinaren barruan, kanpoan, kalean, behar den tokian, babesa agertzen. Bide eman iezaiozue euskarari, berdintasunaren alde.

Iruñean, 2017ko abenduaren 16an